



## Euskal eskolek **astialdi hezitzaileko 40 ikastaro baino gehiago eskaintzen dituzte: begiralea, zuzendaria eta animatzaile soziokulturala**

- Eskolek eta federazioek **ikastaroak Euskadin egiteko deia egin dute berriro** eta web orrialde berri bat aurkeztu dute **hauen bilaketa** errazteko bakoitzaren ezaugarrien arabera: [www.astialdiforoa.org](http://www.astialdiforoa.org)
- Gazteriaren Kontseiluak **ekintzak antolatu ditu bi egunetan** Astialdi Foroko elkarteen eskutik Leioa eta Vitoria-Gasteizko UPV/EHUko campusetan **formazio eskaintza ezagutzera emateko**

Vitoria-Gasteiz, 2014 irailaren 10a. Aisialdi hezitzaileko euskal eskolek eta federazioek, Astialdi Foroaren barnean lan egiten dutenek, **begiralea, zuzendaria edo animatzaile soziokulturala izateko 40 ikastaro baino gehiagoren eskaintza aurkeztu dute**. Aurten ere, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin (EGK) batera lan egiten dute astialdiko 17 eskolek eta 10 federazioek **horrelako ikastaroak Euskadin egiteko garrantzia azpimarratu dute** eta izena beste erkidegotan antolatzen diren ikastaro expressetan ez ematea gomendatu dute. Formazioa hemengo eskoletan burutzeko arrazoiak hainbat dira: ikasketa prozesua esperientzian oinarritzen da, egun batzuetako ikastaroetan egin ezin dena eta hemengo errealitatera egokitutako gaitasunak eta tresnak bereganatzeko aukera ematen dute euskararen sustapenarekin harreman estua daukatenak. Gainera, Euskaditik kanpo kurtsoa egiten duten pertsonak, zailtasun gehiago dituzte konbalidazioa lortzeko praktikak egiteko garaian.

Bakoitzak bere beharretara egokitzen den ikastaro egokiena aukeratzeko asmoz, **Astialdi Foroak webgune berri bat jarri du martxan eta, aukeraketa errazteko, bilatzaile aurreratu bat sortu da eskaintzen diren 40 ikastaro baino gehiagorekin**. Atari hau [www.astialdiforoa.org](http://www.astialdiforoa.org) da eta bertan ikastaroak lurralde, mota, iraupen eta hizkuntzaren arabera sailkatuak daude. Oso erraza da bilatzailea erabiltzea eta interesatzen zaigun ikastaroa aukeratzeko, **informazio guztia ematen da** prezioa (150 eta 500 eurotako kopuruen artean), izena emateko datak, egutegia eta eskolaren datu guztiekin



Astialdi Foroaren webgune berri hau oso dinamikoa izango da eta informazio zehatza emango du urtearen garaiaren arabera. Orain ikastaroen informazioarekin estrenatu da eta, adibidez, apirila iristean elkarreek udari begira antolatzen dituzten ekintzen berri emango da. Euskaraz eta gazteleraz eskuragarri dagoen tresna berri honen helburua, **elkarte hauek urtean zehar egiten duten lana jendeari zabaltzea da**. Halaber, webgunea 13.000 baino gehiago mugitzen dituzten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako elkarte hauekin harremanetan jartzeko bidea eta azken albisteak, iritziak eta hausnarketak partekatzeko txokoa izango da.

### IKASTAROAK EZAGUTZERA EMATEKO EKINTZAK

Astialdi Foroan parte-hartzen duten elkarreek **ekintzak antolatu dituzte bi egunetan formazio ikastaroak eta web orrialde berria UPV/EHUko ikasle gazteen ezagutzera emateko** helburuarekin. Ekintzak aste honetan eta hurrengoan egingo dira eta bertan ikastaroen inguruko zalantza guztiak argituko dira eta oparixtoak emango zaizkie partaideei ordutegi eta leku hauetan:

#### Leioako campusa, irailak 11 (osteguna)

Ordua eta lekua: 10.00etatik 13.30ra, Mikel Laboa plaza.

Ekintza: Jolasak hainbat materialekin eta dinamikak jausgailuekin.

#### Vitoria-Gasteizeko campusa, irailak 18 (osteguna)

Ordua eta lekua: 10.00etatik 14.00etara, Julio Caro Baroja eta René Cassin kaleen artean.

Ekintza: Hainbat jolas eta "pentsamenduen" landatzea.

Azkenik, Gazteriaren Kontseiluak **"Behar duzun denbora hartu astialdiko hezitzaile izateko" lelopean egindako kanpainaren bideoak** berreskuratzen ditu, iaz Euskadin ikastaroak egiteko martxan jarri zen ekimena; ohar honetan esandakoaren arabera, gaiak oraindik egunerokotasun asko dauka (irudia bakoitzean klik egin hauek ikusteko).

Bideo 1: <https://www.youtube.com/watch?v=pr3oLrFrBPk&feature=youtu.be>

Bideo 2: <https://www.youtube.com/watch?v=f6VgjOc-cAM&feature=youtu.be>

Bideo 3: <https://www.youtube.com/watch?v=NpTJuDsq3yw&feature=youtu.be>

Bideo 4: <https://www.youtube.com/watch?v=Ue0VGaGYaXU&feature=youtu.be>

+info eta elkarrizketak:  
688 67 59 32 / 945 22 06 01  
Iñaki Goikoetxea Arrufat  
EGK-ko komunikazioa